

131. ALDIZKARIA - 2013ko uztailaren 10a

UHARTE ARAKIL

Udal ordenantza, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena. Behin betiko onespena

Uharte Arakilgo Udalak, 2013ko martxoaren 27an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Udal ordenantza, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena. Hasierako onespeneren erabakia 2013ko 83. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, maiatzaren 3an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Uharte Arakilen, 2013ko ekainaren 7an.–Alkatea, Javier Rodríguez Astiz.

UDAL ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Oinarri juridikoa.

Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko V. Kapituluko 167.etik 171.era bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

2. artikulua. Zergapeko egintza.

1. Zerga honen zergapeko egintza da udal mugapean zernahi eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza edo obra lizentzia bat, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe, edo erantzukizuneko aitorpenaren edo aurreko gaztiguaren aurkezpena eskatzen bada, baldin zerga ezartzen duen udalari badagokio lizentzia ematea, lizentzia emateari buruzko txostena (Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Legearen 39. artikulua) edo kontrola.

2. Zergari atxikitako zergapeko egintzat har daitezke hauek:

1.–Edozein motatako eraikinak eta instalazioak, oin berrikoak, egiteko obrak.

2.–Lehendik dauden eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.

3.–Lehendik dauden eraikinen edo instalazioen egitura edo kanpoko itxura ukitzen duten obrak, aldatzekoak edo berritzekoak.

4.–Eraikinen barneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere duten erabilera.

5.–Behin-behineko egin beharreko obrak.

6.–Zerbitzu publikoak paratzeko obrak.

7.–Lur-mugimenduak, hala nola, zelaitzeak, hondeatzeak eta betelanak, baldin onetsia edo baimendua den urbanizazio edo eraikitze proiektu barneko obra gisa zehaztu eta programatu ez badira.

8.–Finkak ixtea.

9.–Eraikinak botatzea, berehalako hondamen egoeran deklaratuak izan ezik.

10.–Zorupea ukitzen duten obrak edo instalazioak.

11.–Eremu publikotik ikusten diren propagandako kartelak paratzea, betiere lokal itxietan ez badaude.

12.–Halako ahalmen ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomikoen inbertsioak berekin dakartzaten obrak, eraikuntzak edo instalazioak, baldin eta obra edo hirigintza lizentzia behar badute.

3. artikulua. Salbuespenak.

1. Zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea salbuetsirik egonen da baldin eta horien jabeak badira Estatua, Nafarroako Foru Komunitatea, autonomia erkidegoak, edo toki entitateak, eta baldin, zergapekoak direlarik ere, zuzenean erabiltzekoak badira errepide, burdinbide, aireportu, lan hidrauliko, hiri saneamendu edo haien hondakin uren saneamendurako, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatzen dituzten, dela eraikuntza berriko lana, dela kontserbaziozkoa.

2. Salbuetsirik egonen dira, baita ere, ondoko jabeak dituzten eraikuntzak, instalazioak eta obrak:

a) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak bere helburuak betetzeko sortu dituen entitate juridikoak, betiere eraikuntzak, instalazioak edo obrak erabilera edo zerbitzu publiko bati loturik badaude.

b) Sakanako Mankomunitateak, betiere Uharte Arakilgo Udala kide bada, baita helburuak betetzeko sortzen dituzten entitate juridikoak ere.

3. Tasa hauek direla medio Telefónica de España, S.A.U. enpresari egokitu lekiokoen ordainketa dirutan egin beharreko urteko ordainaz ordezkutzen da, Nafarroako Foru Erkidegoan Espainiako Telefono Konpainia Nazionalak behar duen tributu araubidea ezarri zuen abenduaren 29ko 11/1987 Foru Legeak xedatutakoarekin bat.

4. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Ordainarazpen honen subjektu pasiboak hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisiko eta juridikoak eta Zergei buruzko abenduaren 14ko Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren entitateak, baldin eraikuntza, instalazio edo obraren jabe badira, hura egiten den higiezinaren jabe izan ala ez.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabetzat hartuko da hura egitearen gastuak edo kostua ordaintzen dituen.

2. Uharte Arakilgo Udalaren aitzinean argi eta garbi egiaztatzen ez bada obren jabea obra horretako eraikinaren jabeaz bertze pertsona bat edo entitate bat dela, obrena bera hartuko da eraikinaren jabetzat.

3. Zergadunaren ordezeko subjektu pasiboak dira hartarako lizentzia eskatu, edo erantzukizuneko aitortpena edo aurreko gaztigua aurkeztu, edo eraikuntza, instalazio edo obrak egiten dituztenak, ez baldin badira zergadunak berak.

5. artikulua. Zerga oinarria, kuota eta sortzapena.

1. Zerga-oinarria eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta benetakoa da, eta holakotzat hartzen da, ondorio hauetarako, haren exekuzio materialari dagokiona, proiektuan diren elementu guztiak barrenean hartuta, eta lizentziaren edo erantzukizuneko aitortpenaren helburu den eraikuntzari, instalazioari edo obrari dagokionez berizitasun edo nortasun propiorik ez badute. Zerga-oinarriaren zati ez dira ez balio erantsia, ez araubide bereziko antzeko zergak, tasak, prezio publikoak, ez tokiko izaera publikoko ondareko gainerako prestazioak, horiek eraikuntza, instalazio edo obra alorrekoak badira, ez eta profesionalen ordainsaria, kontratistaren enpresa-mozkina edo beste edozein kontzeptu, hori exekuzio materialaren kostuan sartzen ez badira.

2. Zerga honen kuota izanzen da zerga-oinarriari %3,7ko karga-tasa aplikaturik ateratzen dena (%2 eta %5 artekoa), osoko bilkurak 2012ko azaroaren 29an erabakitakoaren arabera. Erabaki hori argitaratu zen 2013ko 20. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 30ekoan.

3. Zerga hau, eraikuntza, instalazioa edo obra hasten delarik sorrarazten da, nahiz eta hartarako lizentziarik lortu ez den.

6. artikulua. Zergaren kudeaketa.

1. Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, hasiera batez, autolikidazio-araubidepean galdatuko da. Obrak bururatutakoan, Uharte Arakilgo Udalaren eskumena

izanen da zergaren behin betiko likidazioa egitea, betiere ordenantza honetan aurreikusitako kudeaketa arauekin bat.

2. Subjektu pasiboak behartuta egonen dira dagozkien zergen autolikidazioa egitera, Uharte Arakilgo Udalak emanen dizkien inprimaketan. Zergaren kuota, gehienez ere, hilabeteko epean ordaindu behar da, ondoko datetatik aitzina:
 - a) Hasierako autolikidazioen kasuan, lizentzia noiz jakinarazi eta data horretatik aitzina, edo, lizentzia eskatu, eman edo ukatu ez bada, eraikuntza, instalazioa edo obra noiz hasi eta data horretatik aitzina; bigarren kasu horretan, ordainketak ez du berekin ekarriko inongo presuntzio edo aldarrikapenik subjektu pasiboaren aldeko eskubideei dagokienez.
 - b) Autolikidazio osagarria bada -proiektua aldatu delako-, proiektu berrirako baimena noiz jakinarazi eta hortik aitzina.
 3. Subjektu pasiboek aurkezten duten hasierako autolikidazioaren ordainketa behin-behinekoa izanen da, behin betiko ordaindu behar duen kopuruaren konturakoa.
 4. Lizentzia bat eskatzen den orotan, hasierako autolikidazioaren zerga-oinarria interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zedarrituko da, betiere aurrekontu horrek kasuan kasuko elkargo ofizialaren oniritzia eramaten badu, halakoa nahitaezko baldintza denean. Bertzelakoetan, udal teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, egitasmoaren kostu zenbatetsian oinarrituta.
 5. Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko proiektua aldatuz gero, eta horren aurrekontuak gora egiten badu, Uharte Arakilgo Udalak aldaketa onartzen duenean, subjektu pasiboek zergaren autolikidazio osagarria aurkeztu beharko dute, hasierako aurrekontuaren eta aldaketaren ondoriozkoaren artean dagoen aldearen gainean, betiere Ordenantza honetan ezarritako epe, betekizun eta ondorioei lotuta.
 6. Behin eraikuntzak, instalazioak eta obrak bururatu eta egiazki egin direnak ikusita, hilabeteko epean haien amaiera edo behin-behineko onarpenetik aitzina, tributudunak deklarazio bat aurkeztuko du inguruabar hori azalduz eta eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako eta egiazko kostua adieraziz, eta, deklarazioarekin batera, obraren zuzendari eskudunak haren gainean emandako egiaztagiria, betiere dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, eta, halakorik behar izatera, kostu hori egiaztatzeko fakturak edo bertzelako agiriak, ordenantza honen 7.13. artikuluan aipatzen baitira. Agiri horiek epearen barnean aurkezterik ez badago, hilabeteko luzapena eskatzen ahalko zaio Uharte Arakilgo Udalarari -betiere epe horren baitan-, agiriak aurkezteko. Irekitzeko lizentziarik, erabilera aldatzekorik, lehen erabilerakorik edo bertze zenbait lizentzia bideratu behar izanez gero, agiri horiek kasuan kasuko lizentziarako eskaerarekin batera aurkezten ahalko dira.
 7. Subjektu pasiboek bukatutako eraikuntzen, instalazioen edo obren benetako kostuaren gaineko aitorpena aurkezteko betebeharra dute, nahiz eta hasierako autolikidaziorik aurkeztu ez eta Uharte Arakilgo Udalak kontzeptu hori dela medio aurrez ordaintzeko ez errekeritu.
 8. Behin benetako kostua ezagututa, eta administrazioak egitekoa den egiaztapena eginik, tributur arloko administrazioak behin betiko likidazioa egiten du, subjektu pasiboak hasieran autolikidatutako kuotarekin dagoen diferentzia positibo edo negatiboaren gainean, halako eran non, behar izatera, subjektu pasiboari behar den kopurua galdatu edo itzuliko baitzaio.
 9. Eraikuntzen, instalazioen edo obren bukaerako datatzat joko da Zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabilia xedatzen ahal dena, eta partikularki, haiek zer xede edo erabileratarako aurreikusi eta gerora inongo jarduketa material egin gabe horiek betetzeko prestaturik dauden uneari dagokiona.
 10. Baldin eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak gauzatu bitartean zergaren subjektu pasiboen aldaketa edo ordezkapena gertatzen bada, bukaerako likidazioa obrak noiz amaitu eta data horretan subjektu pasiboa denari egiten zaio.
 11. Udalak autolikidazioak Ordenantza honetako arauak zuzen aplikaturik egin direla egiaztatuko du, eta, horrenbestez, lortutako oinarriak eta kuotak arau horiek aplikatuta lortuak direla. Xede hori hartuta, Udalak kasu guztietan egiaztatuko du autolikidazioetan jarritako oinarria eta benetako kostua ziurtatzeko kasuan-kasuan aurkeztutako aurrekontu, faktura edo egiaztagirietan agertzen dena bat eta bera direla. Horiek kostu erreala egiaztatu behar dute, lizentziaren espedientean interesdunek aurkeztutakoa.
 12. Udala autolikidazioekin ados ez badago, likidazioak egiten ditu, gaizki aplikatutako kontzeptuak edo datuak eta akats aritmetikoak zuzenduta, berandutzaren interesak kalkulatuak ditu eta behar diren zehapenak ezarriko ditu. Orobat, subjektu pasiboak deklaratzeko ez dituen zergapeko egintzen likidazioa egiten du.
 13. Udalak errekerimendu egiten ahalko dio subjektu pasiboari, eraikuntza, instalazio eta obren kostu egiazkoa jaso dezan, hala nola behin betiko aurrekontua, obren ziurtagiria, exekuzio kontratuak, proiektuari dagokion kontabilitatea, obra berriaren deklarazioa edo bertzelako edozein dokumentu.
- Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, edo osatu gabe aurkezten badira, edo haietatik ezin bada atera benetako eta egiazko kostua, Udalak zerga-oinarria zedarrituko du,

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean ezarritako prozedurarekin bat.

14. Lizentziaren titularrak uko egiten badio baimendutako eraikuntza, instalazio edo obrak egiteari, espresuki eta idatziz egin ere, Udalak zerga honen kontura ordaindutako zenbatekoak itzuliko dizkio.

Orobat, behin lizentzia bat iraungita, Udalak zenbateko horiek itzuliko ditu, salbu lizentziaren titularrak hori berritzeko eskatu eta Udalak baimentzen badu.

15. Tramitazio laburreko araubidearen eta lizentzia jakinarazien araubide bereziaren menpeko lizentzien kasuan, eskatzaileak ondokoak aurkeztu beharko ditu, lizentzia-
eskabidearekin batera: autolikidazioko agiria, behar bezala beterik, eta ordainagiria.

16. Autolikidazioa ordaintzeak ez dakar berekin lizentzia ematea, eta ordaindu izanaren gaineko ziurtagiria erretiratu beharra dago, behin bideratu eta gero, lizentzia kudeatzen duen bulegotik.

7. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Tributuaren aurkako arau-hausteen kalifikazioari dagokionean, baita haien zehapenen gainean ere, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta toki entitateen Ogasuna arautzen duten gainerako legezko xedapenetan (udal ordenantzak barne, baldin badaude) xedatutakoari jarraituko zaio.

Iragarkiaren kodea: L1308461